

bola hori egiazta dadin euskararen kasuan. Ez naiz ezko-
rra, ezta batere, baina euskararen salbatzeko eta geroari
begira sendotzeko ez dut uste hamar mila bide denik. Lor-
tu behar dugu, ahal bezain lasterren, ofizialtasun maila
batera irits dadin. Aspalditik ohartuta nabil, herritar gu-
tiz-gehienak zilegitasunaren aldekoak direla eta, beraz,
noiz eta euskarak legezko arau bat izango duenean, or-
duan eta haren gerizatzaille izango dira. Anartean, frantses
agintearen alderat borroka eginda eta gure egunerokoan
lan txikiena ere eginda sustatu behar dugu euskara. Guk,
abertzaleek edo euskaltzaleek —bost axola zait bakoitzak
nola ikusten duen bere burua— hori ez badugu egiten,
inork ez du eginen eta euskarak bai, orduan, berea egina
izango duela. Hargatik, ez dut gertakizun hau sinesten,
bai baitakit egongo garela, gero eta gehiago, esperantza-
ren bideetatik ibiltzaille. ♣



Andres Urrutia

Akarregik dio

I

Akarregik dio lerro hauen arrazoa izan dela behingo ba-
tean Donostiatik jaso zuen gutuna. Bertan esaten zitzaion,
labur eta sotil, idatzi behar zituela azken urte honen gora-
beherak. Dio Akarregik aurretiaz ere jaso zuela halako
enkargu eta mandaturik, eta aspaldikoa izan arren, orain-
goan ere ez duela asmorik huts egiteko, inork inon kritika
ez eta, are kezagarriagoa dena, urteroko euskal argazkie-
tatik baten batek bazter ez dezan.

Joan da, bada, Akarregi bere luma hartzera garai bate-
ko adixkide idazleei erantzuna emateko. Ez du, horratio,
horretarako argumenturik nahikoa. Akarregi, jakina, egun-

kari irakurle dugu. Ez, ordea, egunkarietatik halako mozkin, orrialde edo albiste gordetzeko ohituraduna. Hori jaidura zuzena edo okerra denentz, ez du Akarregik bereizten.

Horrexegatik, estu eta larri ibili behar izan du Akarregik, zeri heldu eta zer baztertu, ezertan baino lehenago, bere burua antolatu nahi izan duelako lerro horien egikeran.

Akarregik dio ez dela erraza Euskal Herri moduko herri txiki baten barruan lau letretan laburtzea urte osoko gorabeherak. Batetik, gertaera batzuk bazter utz ditzake nahi gabe eta ohartu barik. Bestetik ere, arlo askotan egin beharko luke albiste, dio Akarregik, gauzak behar den moduan azaldu ahal izateko.

Akarregik, oster, halako estualdian bere buruari egin dio gizaki orok aspalditik asmatuiko galdera: *Zer egin?* Akarregi, nolana ere, aukeratu beharrean egon da eta haren aita Akarregi zaharrak esango zukeenez, «etxekoa» hartu du abiapuntu, etxetik kanpora joateko tenorea ere ahaztu gabe.

II

Akarregik dio Euskal Herri horretatik idatziz gero, beraren jaioterria nahi duela gogoratu. Akarregik Bilbotik eta Bilbon idazten du eta horrek, segur asko, beste baldintza batzuk jartzen ditu bere zereginean.

Dio Akarregik, aurtengo giroa, bere herrian behinik behin, erabat desberdin izan dela. Inoizko batean sakabaturik eta lepoa elkarri emanda bizi izan diren zenbaitzuk, berriro elkarturik ikusi ditu Akarregik. Aurrean ikurrina dutela, Euskadi hitza entzun ohi die halakoei behin eta berriro Akarregik. Akarregi bera ere, aspalditik utzia izan arren, bakearen inguruko martxa, ibilaldi eta agertze frankotan ibili omen da. Akarregi, dio Akarregik, bake giro berriaren partaide izan da azken hilabeteotan. Temati ikusi ditu batzuk, eta ulergaitz egin zaio temakeria hori, batez ere, ikur gorri eta horiaren azpian mozorroturik ikusi dituen eite horretakoak.

Akarregik irakurri ditu, berak halaxe dio behinik behin, udal ordezkarien bilkurak. Hango eta hemengoak begiratu ditu, *Udalbiltza* izeneko horren inguruan.

Euskal Herri osorako zimendugintzan ikusten ditu Akarregik horren tankerakoak. Nolanahi ere, heldu beharra eta eskarmentu premia galanta nabaritzen du Akarregik halakoetan.

Akarregik dio, ezen Euskal Herriak bat izan behar baitu, nahitaezkoa duela euskara. Euskarak, ostera, ez ditu jasoa aurten ere, laztan eta fereka handiak. Akarregik dio berak ikusi duela justizia erdara hutsean aritzea. Horren salatzaileak ere, nonahi direla dio Akarregik, epaitegi eta auzitegietan euskara sartu nahian. Nekez eta penaz ikusten du Akarregik hori, askoren ogibidea jokoan dagoelako. Dio Akarregik horretarako biderik ez duela argi-argi ikusten, orain arteko esan-eginek, aurrera begira baino, aspal-diko egoerari oratu nahi diotelako soil-soilean.

Etorkizuneko pausoak falta direla, dio Akarregik, eta horren zantzuak ere ez dituela inon ikusten, paper eta egunkarietan erruz eta ugari agertu arren edu horretako berriak.

Nork eta euskararen alde egin behar baitu, Frantziako estatuak hartu du berba hizkuntza kontuetan. Akarregik dio berebiziko poza ekarri diola Frantziak Hizkuntza gutxituen Euroagiria sinatu zuela jakiteak. Sinadura eskas eta urri, horixe bai, frantses hizkuntzari dagokiona zalantzan eta duda-mudatan inoiz ere jarri gabe.

Akarregik dio txundituta ikusi duela Baionako manifestazioa. Hura zen jende elementia! Leku eta jatorri oso bestelakoetatik etorriak, jende horiek ozen egin dute deia-darra euskal departamenduaren alde.

Zinezko ikuspegi aldaketa, dio Akarregik, Parisko bere egonaldiak gogoratu. Berehalakoan azaldu dira horren aurkakoak. Frantzia ez omen da herrien herria, herri bakarra baino. Frantsesak beti izan dira bat errepublika sakratuaren baitan. Oro jakina, oro zaharra. Akarregik dio gero eta indartsuago datorrela behinolako hura, bertsolariak esana: *liberte, legalite, fraternite, gezur polit horiek egia balite!*

III

Bimilurteko gorabeherak ere Akarregiren belarrietara iritsi dira. Ez da bera oso jakitun ordenadore kontuetan eta, beharbada, jakinminez eta oharbidez galdetu dio lagun bati ea data horretako ondorioak horren larri izango diren.

Gabonzaharreko horrek kezkaturik dauka Akarregi, arranguraturik, etorkizuneko kontu hori hil edo biziko izango balitz legez. Etxean badu bere gailutxoa, bertan ere ondo jarria, ditxosozko gau horretan kalterik izango ez duelako segurtasunarekin. Akarregi famatua! Aurreneurriak hartuta, Akarregik ez ditu ondo bereizten gailu horien saltzaileen jukutriak ala zinezko gertaerak izango diren horiek. Zain dugu, bimilurteko horren hasieraren zain, zertxobait berri etortzeko zain, urte aldaera horrek ekar dezakeen magia ezezagun horren itxaropentsu.

Akarregik badaki, jakin ere, bi milagarren horrek ez dituela konponduko arazo guztiak. Ezta bideratuko ere. Baina badu, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzigarren urtekoa ikusita, horretarako esperantza izpirik. Ikusi ditu ikustekoak, politikan, ekonomian, kirolean, kulturean eta abarrekoetan. Minez dago, azken hogeita bost urteotako batzuen nondik norakoak iragarrita. Halako batean, aditu du berria Akarregik. Albiste egin diote Carlos Garai-koetxeak Eusko Alkartasunaren alderdi buruzagitzak utzi duela. Aldaketa somatu du horretan. Bide berrirako, bes-telako aro baten atarian ote? Akarregi baiezkoan dago.

IV

Kalean ikusi du jada Akarregik asteroko berriztatua, euskaraz egina. *Zabalik* du izena, eta helburua ere, euskaraz zer gertatu barreiatzea. Kioskoetan nabaritu du hori, euskarazko apurrak, nekez eta kostata plazaratzen dituen egunkari erdaldun baten aldamenean. Batera saltzen omen biok, erdarazkoa eta euskarazkoa. Adabaki hutsa ala izate sendoa? Akarregik lehendabiziko zenbakia irakurtzean

ez du gauza argirik somatu. *Geroak erranen*, dio Akarregik, oraintsu irakurri duen Iparraldeko testu baten jiraboltan.

V

Dio Akarregik aurten ere esku-eskura izan dituela hainbat eta hainbat liburu, argitalpen eta abar. Akarregiri, ordea, ez dio ttirrin handirik egiten desmasia horrek. Gustura irakurri ditu lehengo zahar horiek, Eusko Jaurlaritzatik eta argitaletxe zenbaitzuren eskutik etorriak.

Oraintsu irakurri eta bergozatu ditu Agirre Asteasukoa-ren *Erakusaldiak* edota Jean Saint-Pierre *Anxuberro*-ren artikulua. Zer esan *Kattalinen gogoetak* berrargitaratzeaz? Gutxitan ibili da horren pozik Akarregi joaneko urte honetan, aspaldiko hura ostera ere irakurtzeko aukera izan duenean baino. Fr. Mateo Zabalaren *Sermoiak* ere, gertu-gertura, bizkaiera klasikoaren testigantza paregabea.

Zerrenda horretan, astun eta lodi aurkitzen duenik ere egon daitekeenez, Akarregik dio arineketan ibilia dela bimilurte bezperako honetan. Horretara, Auspoa sailaren liburuak atsegin osoz irentsi ditu, herrian herriko lanak baitira nagusi, sasiletratu askoren gainetik eta piperrik gabeko teorizazio lan pisutsu frankoren azpitik.

VI

Arras nekaturik ikusten du bere burua Akarregik. Asteburu honetan, halakoxea hartu du erabakia Akarregik: Arranondora joango da, atsedena hartu eta itsasoko haize freskoan burua murgilduko du, inolako estutasun eta larrikerik gabe.

Lorietan dabilkigu Akarregi, moilan zehar ibili bitartean. Udazkenaren hego-haizea lagun, eskuan drama liburua, Arranondoko portuan, tartean-martean, itsason-tziak agertuta. Soka, txikota, mutxilo, motorren olio eta kresala dira noranahi. Usaina ere berezia. Gaitz da horren sentzazioa idaztaraztea. Mila bederatziehun eta laurogeita

hemeretzigarren urtea badoa, dio, oldozkor, Akarregik, kai puntara iritsi bitartean.

Handik kanpora, itsaso zabala, gertakizun berrien iturria, ezezagunaren jatorria, eta —zergatik ez?— urte berri baten irudi bizia. Bimilurteko horretan pentsamendua jarria duela, Arranondoko Alamedara dator Akarregi.

Han bertan, batera eta bestera zabalduta, mahai batzuk, inguruko tabernetan jabea dutenak.

Ezagutu du Akarregik, mahaikideen artean, behinola-ko Lisboan adixkide izan zuen Pereira izeneko tipo apartekoa. Irakurtzen dihardu eta kafea du aldamenean.

Agurtuko duela, dio Akarregik eta, egia esan, ez daki une horretan Arranondoko Alamedan edo Lisboako rua batean dagoen. Inguruan, neska-mutil gazteak. Euskaraz eta portugesez ari dira. Arrantzaleen umeak dira.

Pereirak, halaxe dio berak, Akarregi ikusi eta ezagutu du.

Akarregi, halaxe dio berak ere, Pereiraren alboan jarri da. *Moito obrigado...*

Horra lehendabiziko berbak, tabernariari Portugaleko ardo gorri botilatxoa euskaraz eskatu aurretik.

Pereirak liburua utzi du mahai gainean. Izena ere harrena du idatziak azalean: *Sostiene Pereira*.

Sostiene Pereira, Akarregik dio... ez du axolik. Adixkide zaharrak, beste behin ere, hizketa bizian ari dira. Berbaroaren haria, segur asko, datorren mendeko autuetatik doakie. Sostiene Pereira..., Akarregik dio... ¶